

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA

1. Diru-laguntzetarako deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako (2014)
2. Abokatuen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa
3. Prokuradoreen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa
4. Doako laguntza juridikoa. Funtzionamendu gastuak. Abokatuen Elkargoa
5. Doako laguntza juridikoa. Funtzionamendu gastuak. Prokuradoreen Elkargoa.
6. Etxeko indarkeriaren txanda
7. Espetxeetako lege laguntza
8. Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendugastuetarako.
9. Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako oposizioak prestatzeko

1.- Izenburua

Diru-laguntzetarako deialdia (norgehiagoka)

Diru-laguntzetarako deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako (2014)

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten gizarteratzeko eta lan-munduak txertatzeko proiektuak jaso ahal izango dute diru-laguntza:

- a) Espetxeetan hasten diren proiektuak dagokion espetxeko Zuzendaritzak onartu beharko ditu.
- b) Laguntza integraleko metodologia erabiliko dute.
- c) Espetxetik kanpoko baliabideekin burutuko dira eta ondorengo aukeretakoren bat izango da:
 - Programatutako irteerak eta auzolandegiak.
 - Egoitza- eta alojamendu-baliabideak.
 - Mendekotasuna gainditzeko baliabideak droga mendekotasuna duten pertsonentzat.
 - Prestakuntza eta trebakuntza zentroak.
 - Lanerako orientazio- eta laguntza-zentroak.
- d) Proiektuak 2014. urtean zehar gauzatuko dira.

2.- Baldintzak proiektuak burutu aurretik eta diruz laguntzeko aldiari bete beharko dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

EBAZPENA, 2014ko irailaren 5ekoa, Justiziako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia ebazten duena. 2014ko irailaren 11ko EHAA n argitaratu zen.

Presoak gizarteratzeko 43 proiektu izan dira, guztira. Proiektuek ondorengo eremuak hartu dituzte:

-Programatutako irteerak eta auzolandegiak. 8 proiektu.

-Egoitza- eta alojamendu-baliabideak. 8 proiektu.

-Mendekotasuna gainditzeko baliabideak droga mendekotasuna duten pertsonentzat. 5 proiektu.

-Prestakuntza eta trebakuntza zentroak. 11 proiektu.

-Lanerako orientazio- eta laguntza-zentroak. 12 proiektu.

Aurrekontu-programak 45 proiekturako aurreikuspena egin zuenez, 43 proiektu aurkeztu izanak argi erakusten du betetze-mailaren handia. Egin-eginean ere, proiektuen kopuruak maila horri eutsi dio azken urteotan, eta lehenengo aldia da presoan eta osasun mentalaren alorrean diharduten erakunde batzuek eskaria aurkeztu dutela (Erain eta Fedefes), eta bigarren aldia, berriz, Aranzadi elkarteak Martuteneko presoentzako auzolandegi bat paratzen duela Zestoan.

1.- Izenburua

ABOKATUEN ELKARGOA. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoa arautzen duena.

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, doako laguntza juridikoari buruzkoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek zaintza judizial eraginkorra izan dezaten bermatzeko programa da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeen bitartez Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legea aplikatzea erraztu eta arloan indarrean dagoen araudiaren betetzearen jarraipena egin da; batzorde horiek doako justiziaren 14.870 espediente bideratu dituzte.

Abokatuen kidegoei ordainketa bideratu zaie, halaber, atxilotuei laguntza eskaintzeagatik eta aitortutako doako justiziaren barruan ofiziozko txandak egiteagatik.

1.- Izenburua

PROKURADOREEN ELKARGOA. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoa arautzen duena.

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, doako laguntza juridikoari buruzkoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek zaintza judizial eraginkorra izan dezaten bermatzeko programa da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen aplikazioa erraztu eta arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela jarraitu da; izan ere, Prokuradoreen Elkargoei ordaindu zaizkie ofiziozko txandan aitortutako doako justiziaren barruan egindako jarduketa guztiak; programak erabateko inpaktu soziala izan du, erreferentziako lege-aginduei lotutako kasu guztiei arreta eman baitzaie.

1.- Izenburua

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA. FUNTZIONAMENDU GASTUAK. ABOKATUEN ELKARGOA

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoa arautzen duena.

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, doako laguntza juridikoari buruzkoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek zaintza judicial eraginkorra izan dezaten bermatzeko programa da, kasu honetan, zehazki, diru-ordaina emateko Abokatuen Elkargoen Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamenduari dagokionez dituzten gastuengatik.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen aplikazioa erraztu eta arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela jarraitu da; izan ere, Abokatu Elkargoei OJZen (Orientazio Juridikoko Zerbitzuak) funtzionamendu-gastuak ordaindu zaizkie, abokatuak ofiziozko txandetan sartu eta egotearekin lotutako kostuak barne. Lortutako emaitzak horietara bultzatzen duten arauak aurreikusitakoak dira, eta horrek baliagarritasun eta inpaktu soziala bermatzen du; izan ere, Abokatuen Elkargoei emandako ordaina da, doako laguntza juridikoaren onuradunentzako Ofiziozko Txandaren funtzionamenduagatik eta haien Orientazio Juridikoko Zerbitzuek doako justiziako espedienteak bideratzeagatik.

1.- Izenburua

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA. FUNTZIONAMENDU GASTUAK. PROKURADOREEN ELKARGOA.

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoa arautzen duena.

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, doako laguntza juridikoari buruzkoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek zaintza judicial eraginkorra izan dezaten bermatzeko programa da, kasu honetan, zehazki, diru-ordaina emateko Elkargoek Prokuradoreen Elkargoen Ofiziozko Txandaren funtzionamendu operatiboari dagokionez dituzten gastuengatik.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen aplikazioa erraztu eta arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela jarraitu da, era horretan txanda profesionalei eusten lagunduta. Lortutako emaitzak horietara bultzatzen duten arauak aurreikusitakoak dira, eta horrek baliagarritasun eta inpaktu soziala bermatzen du; izan ere, Prokuradoreen Elkargoei emandako ordaina da, doako laguntza juridikoaren onuradunentzako Ofiziozko Txandaren funtzionamenduagatik

1.- Izenburua

ETXEKO INDARKERIAREN TXANDA

2.- Araua

Abokatuzaren Euskal Kontseiluaren eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren artean 2007ko otsailaren 26an sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako hitzarmen horren lehen estipulazioak xedatzen duen moduan, hauxe da programaren helburua: laguntza juridiko espezializatua bermatzea etxe- indarkeriaren, genero-indarkeriaren edo sexu-askatasunaren aurkako delitu baten biktima guztiei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen aplikazioa erraztu eta arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela jarraitu da, era horretan Abokatuzaren Euskal Kontseiluarekin sinatutako hitzarmena beteta. Emakumeen aurkako indarkeriaren, etxe- indarkeriaren edo sexu-erasoen biktimek 24 orduko doako laguntza juridikoaren zerbitzua, Abokatuen Elkargoetako abokatuek emana, edukitzeak zalantzarik gabeko garrantzia du gizartearentzat, eta betebeharrak legal eta konbentzional bilakatu da; haren baliagarritasun eta inpaktu soziala agerikoa da.

1.- Izenburua

ESPETXEETAKO LEGE LAGUNTZA

2.- Araua

Gobernu-kontseiluaren 2012ko ekainaren 12ko erabakia

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko espetxeetan preso daudenentzako doako lege-laguntza bermatzeko programa da, eta pertsona horiei dena delako zigorrak eraginda ez dauden eskubideen erabilera bermatzea du helburutzat.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Bilatutako emaitzak lortu dira, lege-laguntza hori behar duenari ematen baitzaio beti, eta ageriko eragina du gizartean, bestela behar bezalako arreta izango ez zuten eskubide legitimoen erabilera ahalbidetzen baita.

1.- Izenburua

Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako.

2.- Araua

-411/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Bake Justiziari buruzkoa.

-2014ko uztailaren 15eko Agindua, Herri Administrazio eta Justizia sailburuarena, udalentsako diru-laguntzak ezartzen dituena Bake Epaitegiek 2014an izan ditzaketen funtzionamendu-gastuetarako (EHAA, 150 zk., 2014ko abuztuaren 11koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Botere Judizialaren Lege Organikoak udalerraren eremuan txertatutako organo gisa eratzen ditu Bake Epaitegiak, eta horregatik ez zaio uko egin udalen lankidetzari organo horien baliabide materialak hornitzeari dagokionean.

Horiek horrela, abenduaren 28ko 38/1988 Legean, Mugape eta Planta Judizialari buruzkoan, 50. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenei jarraituz, diru-laguntza programa bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gai honetan dituzten premiei sostengu ekonomikoa emateko.

Horregatik, 1990 urteaz geroztik Dekretu eta Agindu multzo bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntzak arautu eta haietarako deialdiak egiteko, Bake Epaitegietako funtzionamendu-gastuei aurre egiteko asmoz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Bake Epaitegietako funtzionamendu-gastuei aurre egiteko Udalentsako diru-laguntza programa Justizia Administrazioaren 1411 programan dago jasota, bake justiziari buruzko 4. helburuan, betiere gaien eskumena duten erakundeekin koordinatuta, laguntza horiek emateko 2. ekintzan zehazten den bezala.

Deialdia egin da, eta helburu horretarako aurrekontuan jasotakoaren %91,69 erabili da.

Lortutako emaitzak deialdian aurreikusitako berak dira; baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina garrantzitsuak izan dira, Bake Epaitegia duten 236 udalei eman baitzaizkie funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak.



1.- Izenburua

Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako oposizioak prestatzeko

2.- Araua

-Agindua, 2013ko abuztuaren 1ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Idazkaritza Judizialeko Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2014ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena (EHAA, 171. zk., 2013ko irailaren 9koa).

-2013ko azaroaren 29ko Ebazpena, 2013ko abuztuaren 1eko Aginduak zabalduzko deialdian emandako laguntzak ebatzi eta argitaratzen dituen, Karrera Judizialerako eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako sarbidea prestatzeko ematen diren laguntzei dagokiena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza lerroa, zuzenbideko lizentziadunak motibatzea helburu duena beren lanbide asmoak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Idazkari Judizialen Kidegora bidera ditzaten.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Karrera Judizialerako eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntza programa Justizia Administrazioaren 1411 programan dago jasota, lanbide judizialean egonkortasuna sustatzeko 5. helburuan, betiere gaian eskumena duten erakundeekin koordinatuta, laguntza horiek emateko 1. eta 2. ekintzetan zehazten den bezala.

Deialdia egin da eta ebazpena eman da, eta helburu horretarako zeuden 20 beka eman dira; hala ere, onuradun batzuen (3) ukoa dela eta, ez da ekitaldian zehar dena exekutatu, helburu horretarako aurrekontuan jasotakoaren %92,92 erabili baita.

Baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina handiak izan dira, bai eskatzaileen kopuruagatik, bai kidego judizial horietan sarbidea izan duten onuradunen kopuruagatik, azkenean Euskal Autonomia Erkidegoko justizia aparatuan integratuko baitira.